Uztaila
Julio

2023

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
VITORIA-GASTEIZ
IRUÑEA / PAMPLONA
DONIBANE LOHIZUNE /
SAINT-JEAN-DE-LUZ

**Informazio gehiago** | Más información
**www.filmoteka.eus**







# JAZZINEMA

**Antolatzailea** | Organizador

**EUSKADIKO FILMATEGIA**
FILMOTECA VASCA
CINÉMATHÈQUE BASQUE

**Kolaboratzaileak** | Colaboradores

58 Donostiako JaZZaldia

Jazz vitoria gasteiz

SSIFF Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival

# URDINEN ETA BELTZEN ARTEAN

Jazzaren eta zinemaren arteko binomio zoriontsuarekiko gure urteroko hitzordua bi kolore horiek markatuta dator, biak baitira, izan ere, oso jazzistikoak eta baita ere oso zinematografikoak. Lotura bitxiak agertzen dira beti ziklo hauek osatzen dituzten filmen artean. Oraingoan, urdina eta beltza (*blues* & *black*) dira Jazzinemaren seigarren edizio honetako lau filmak uztartzen dituzten bi margoak. Zergatik? Animazioaren, fikzioaren eta fikzioa ez denaren magiagatik…

Gainera, badago beste zertzelada bat aurtengo lau filmetatik hiru gutxienez elkartzen dituena: ia ez dira pantaila handian ikusiak izan bazter hauetan. Has gaitezen *blue* filmetako batekin. Orain dela hiru urte, gaur egun hain urruna dirudien pandemia haren ondorioen pean geundenean oraindik, Pixaren film zoragarri hau bere plataforman estreinatzea erabaki zuen Disneyk: *Soul* (Pete Docter, Kemp Powers, 2020). Jazz piano-jotzaile gisa arrakasta izatea amesten duen musika-irakasle bati buruzko animaziozko film eder, dibertigarri eta musikala, alegia. Lortzen duenean, Heriok bisita egiten dio. Baina heriotza baino zerbait indartsuagoa behar da amets bat gelditzeko. Tonu urdinez filmatuta dago ia bere osoan, tristura itxaropentsuzko halakoxe giroarekin bat eginik.

*Blue*ren ondoren, *black*. XX. mendeko musikaririk garrantzitsuenetako baten aurpegi beltz, izerditsu, urduri eta erabatekoa: Thelonious Monk handia, *Rewind* & *Play* (Alain Gomis, 2022) filmeko protagonista guztizkoa. Pianoaren jenio hari 1969an egindako baina sekula emititu gabeko telebistako elkarrizketa bat aurkitu zuten frantses filmegile batzuek. Ikusi orduko, aise ulertzen da zergatik ez zen emititu. Theloniousek bere pianoa aski zuen diskurtso guztiak hausteko.

Beste *black*ak *El trompetista* (Michael Curtiz, 1950) filmatuta dagoeneko zuri-beltz loriatsuaren aipamena egiten du, non Kirk Douglas gaztea inork lehenago jo ez duen nota hori aurkitzearekin obsesionatuta baitago. Baina *black*ek orobat aipatzen du Lauren Bacall zoragarriak janzten dituen soineko dotoreen margoa, hura izango baitu Douglasek lagun galbiderako bere bidean. Bacallen *black*en eta Doris Dayren *white*ren artean, Douglasek aukeratuko du… Zatozte filma ikustera eta jakingo duzue zer.

Eta *blue*ra itzuliko gara bukatzeko. Zeren eta estreinaldi bibiril batekin amaituko baitugu zikloa: japoniar *anime*ko film ospetsu bat, Shinichi Ishizukaren mangak argitaratu zirenetik bere herrian fenomeno sozial erabatekoa izaten ari dena. *Blue Giant* (Yuzuru Tachikawa, 2023) urria aldera iritsiko da areto komertzialetara, Selecta Visionen eskutik, baina Jazzineman estreinatuko da. *Blue*a izenburuan dago jadanik, baina urdina da baita ere kontakizun honetako kolore nagusia, non saxofoi-jotzaile gisa arrakasta izan nahi duen mutil gazte batek ikasi beharko baitu ezen bide horretan larrutik ordaindu behar izaten dela. Amaiera berezibizikoa izango da, gainera, Hiromiren hots-banda halakoxea delako, munduko jazz konpositore ospetsuenetako bat eta pianoaren birtuoso hutsa denez.

Proiekzio horiekin agur esango dizuegu urria arte; orduan Euskadiko Filmategiak bere programazioari berrekingo dio urte bukaera arte euskal emakume zinemagileek zuzendutako filmen zikloaren hirugarren edizioarekin.

## **IKURRAK** / SÍMBOLOS

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Zuzendaritza** Dirección | **Urtea** Año | **Herrialdea** País | **Ekoizpena** Producción | **Gidoia** Guion |

# ENTRE AZULES Y NEGROS

Nuestra cita veraniega anual con el feliz binomio entre el jazz y el cine viene marcada por esos dos colores, ambos muy jazzísticos y también muy cinematográficos. Siempre aparecen extrañas conexiones entre las películas que conforman estos ciclos. Esta vez, el azul y el negro (*blues* & *black*) son los dos colores que unen a las cuatro películas de esta sexta edición de Jazzinema. ¿Por qué? La magia de la animación, de la ficción y de la no ficción...

Además, aún hay otra circunstancia que une al menos a tres de los cuatro filmes de este año: apenas han sido vistos en pantalla grande por estos lares. Arranquemos con una de las películas *blue*. Hace tres años, cuando todavía estábamos bajo los efectos de aquella pandemia que hoy parece tan lejana, Disney decidió estrenar en su propia plataforma esta delicia de Pixar: *Soul* (Pete Docter, Kemp Powers, 2020). Una bella, divertida y musical animación sobre un profesor de música cuyo sueño es triunfar como pianista de jazz. Cuando lo consigue, la muerte se presenta a visitarle. Pero a veces hace falta algo más fuerte que la muerte para detener un sueño. Rodada casi en su totalidad en tonos azules, acordes con esa atmósfera de cierta tristeza esperanzada.

Tras el *blue*, el *black*. El rostro negro, sudoroso, nervioso, contundente de uno de los músicos más importantes del siglo XX: el gran Thelonious Monk, protagonista absoluto de *Rewind & Play* (Alain Gomis, 2022). Unos cineastas franceses descubrieron un material grabado de una entrevista televisiva a este genio del piano, hecha en 1969, que no llegó jamás a emitirse. Una vez visto, resulta fácil comprender por qué. A Thelonious le bastaba con su piano para romper todos los discursos.

El otro *black* hace referencia al glorioso blanco y negro en el que está rodada *El trompetista* (Michael Curtiz, 1950), la historia de la obsesión de un joven Kirk Douglas por encontrar esa nota que nadie ha tocado antes. Pero el *black* también hace referencia al color de los elegantes vestidos que luce la maravillosa Lauren Bacall, quien acompañará a Douglas en su camino a la perdición. Entre el *black* de Bacall y el *white* de Doris Day, él opta por… Vengan a verla y sabrán.

Y volvemos al *blue* para cerrar. Porque clausuraremos el ciclo con un estreno con mayúsculas, de prestigio, de una película *anime* japonesa que lleva a la pantalla lo que está siendo un auténtico fenómeno social en su país desde que se publicaran los manga de Shinichi Ishizuka. *Blue Giant* (Yuzuru Tachikawa, 2023) llegará a las salas comerciales hacia octubre, de la mano de Selecta Vision, pero se va a estrenar en Jazzinema. El *blue* está ya en el título, pero también es el color predominante en esta historia de un joven que busca triunfar como saxofonista y que tendrá que aprender que en ese camino siempre se dejan muchos jirones de piel. El final será además apoteósico porque lo es la banda sonora de Hiromi, una de las más prestigiosas compositoras de jazz y virtuosas pianistas del mundo.

Con estas proyecciones nos despedimos hasta el mes de octubre, cuando Filmoteca Vasca volverá a retomar su programación hasta final de año con la tercera edición del ciclo de películas dirigidas por cineastas vascas.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Muntaketa** Montaje | **Argazkia** Fotografía | **Musika** Música | **Aktoreak** Intérpretes | **Iraupena** Duración |







# SOUL

| 2023/07/06 | 2023/07/07 | 2023/07/20 |
|---|---|---|
| ARTIUM MUSEOA **VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA **DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** | GOLEM BAIONA **IRUÑEA-PAMPLONA** |
| **19:00** | **19:00** | **20:00** |
| **Joxean Fernández** | **Miguel Martín, Joxean Fernández** | **Joxean Fernández** |

| | |
|---|---|
| Pete Docter, Kemp Powers |
| 2020 |
| EE BB / EE UU |
| Pixar Animation Studios, Walt Disney Pictures |
| Pete Docter, Mike Jones, Kemp Powers |
| Matt Apsbury, Ian Megibben |
| Kevin Nolting |
| Trent Reznor, Atticus Ross |
| Jamie Foxx, Tina Fey, Graham Norton, Rachel House, Alice Braga, Richard Ayoade, Phylicia Rashad |
| 100’ |

**Adinean sartutako musika irakasle batek amets kuttun bat izan du beti: jazz musikari gisa arrakasta izatea. Baina ametsa gauzatzeko aukera suertatzen zaionean, estolda-zulo ireki batek ilusioak zapuztuko dizkio. Gizona buru-belarri saiatuko da aukera horretaz gozatzeko lehengora itzultzen, baina, lortuko badu, arima beldurti bat gizaki batean haragitzea erdietsi beharko du.**

Un maduro profesor de música ha acariciado siempre un sueño: triunfar como musico de jazz. Pero cuando surge su oportunidad, una inoportuna alcantarilla abierta trunca sus ilusiones. Él intentará por todos los medios volver para disfrutar de esa oportunidad, y solo lo logrará si consigue que un alma miedosa quiera encarnarse en un humano.

Hizkuntza / Idioma
**Ingelesa / Inglés**

Azpitituluak / Subtítulos
**Gaztelania / Castellano**






# REWIND & PLAY

| 2023/07/13 | 2023/07/14 | 2023/07/27 |
|---|---|---|
| ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** | GOLEM BAIONA<br>**IRUÑEA-PAMPLONA** |
| **19:00** | **19:00** | **20:00** |

- Alain Gomis
- 2022
- Frantzia / Francia
- Andolfi, Sphere Films
- Alain Gomis
- Alain Gomis
- Thelonious Monk
- Thelonious Monk
- 65'

Hizkuntza / Idioma
**Frantsesa, ingelesa / Francés, inglés**

Azpitituluak / Subtítulos
**Euskara / Euskera**

**1969ko abendua: Thelonious Monk Parisera iritsi da. Kontzertua baino lehen, musikariak saio bat grabatu du frantses telebistarentzat. Saio hartatik gorde diren pasarteek Thelonious Monk arraro eta itxi bat erakusten digute, estereotipoek harrapatutako gizon bat, alegia, nahiz bera haietatik ihes egiten saiatu zen beti. Dokumentala artista handi haren erreibindikazio bilakatzen da orduan, bere musikarentzat bakarrik existitu nahi lukeen gizonarena. Eta hortxe geratzen zaigu, baita ere, makina mediatiko barregarri bezain nazkagarri horren erretratu biribila.**

Diciembre de 1969: Thelonious Monk llega a París. Antes de su concierto, el músico graba un programa para la televisión francesa. Los fragmentos que se han conservado nos muestran a un Thelonious Monk extraño, cerrado y atrapado por los estereotipos de los que siempre intentó escapar. El documental entonces se transforma en la reivindicación de este gran artista, que quisiera existir solo para su música. Y nos queda también ese retrato contundente de una máquina mediática tan ridícula como repugnante.






# EL TROMPETISTA

## YOUNG MAN WITH A HORN

| 2023/07/20 | 2023/07/21 | 2023/08/03 |
|---|---|---|
| ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** | GOLEM BAIONA<br>**IRUÑEA-PAMPLONA** |
| **19:00** | **19:00** | **20:00** |

- Michael Curtiz
- 1950
- EE BB / EE UU
- Warner Bros
- Carl Foreman (Dorothy Bakerren eleberrian oinarrituta / basado en la novela de Dorothy Baker)
- Ted D. McCord
- Alan Crosland Jr
- Max Steiner, Ray Heindorf
- Kirk Douglas, Lauren Bacall, Doris Day, Mary Beth Hughes, Nestor Paiva, Hoagy Carmichael, Juano Hernández, Jerome Cowan
- 112'

**Bigarren eskuko tronpeta batekin eta ilusio menderaezinaz, mutil gazte bat blues-musikari bikain baten urratsen atzetik dabil, bera ere jazz-musikari handi bilakatu nahian. Haren obsesioak eta talentuak zulo ilunenetatik hiriko klubik dotoreenetara eramango dute. Baina bere baitan daukan doinu horren bila etsi-etsian ibiltzeak, eta doinu horixe ezin joak, eta emakume batekiko harreman orobat ezinezkoak zurrutaren putzu hondorik gabera eramango dute azkenean.**

Con una trompeta de segunda mano y una ilusión indoblegable, un joven sigue los pasos de un brillante músico de blues, en busca de convertirse él mismo en un gran músico de jazz. Su obsesión y su talento le llevan desde los más lóbregos tugurios a los clubes con más clase de la ciudad. Pero su desesperada búsqueda de esa melodía atrapada dentro de sí mismo, que le resulta imposible tocar, y una relación también imposible con una mujer, le terminarán llevando al pozo sin fondo de la bebida.

Hizkuntza / Idioma
**Ingelesa / Inglés**

Azpitituluak / Subtítulos
**Gaztelania / Castellano**






# BLUE GIANT

| 2023/07/27 | 2023/07/28 | 2023/08/10 |
|---|---|---|
| ARTIUM MUSEOA<br>**VITORIA-GASTEIZ** | TABAKALERA<br>**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** | GOLEM BAIONA<br>**IRUÑEA-PAMPLONA** |
| **19:00** | **19:00** | **20:00** |
| **Alberto Ibarrondo** | **Miguel Martín** | |

| | |
|---|---|
| Yuzuru Tachikawa |
| 2023 |
| Japonia / Japón |
| NUT |
| Number 8 (Shinichi Ishizuka *mangan* oinarrituta / basado en el manga de Shinichi Ishizuka) |
| Kasumi Togo |
| Kiyoshi Hirose |
| Hiromi Uehara |
| Yuki Yamada, Shotaro Mamiya, Amane Okayama |
| 120’ |

**Miyamoto Dai saskibaloizale amorratua da, baina egun batean gure mutila zuzeneko jazz saio batera joango da. Saio horrek bizitza aldatuko dio, eta erabakiko du saxofoia jotzen bete-betean aritzea. Daik ez du ez berezko talenturik ez entrenamendurik eta ez dio antzik ere ematen egin beharko duen lan gogorrari. Bete ahal izango du etorkizunean saxofoi-jotzaile handia izateko bere ametsa?**

Miyamoto Dai es un joven apasionado por el baloncesto, hasta que un día asiste a una sesión de jazz en vivo. Esta sesión cambiará su vida, y decidirá dedicarse al saxofón. Dai no tiene ni talento natural ni entrenamiento ni idea de lo que tendrá que trabajar, pero su obsesión por el saxofón le lleva a tocarlo días tras día. ¿Podrá conseguir su sueño de ser un gran saxofonista en el futuro?

Hizkuntza / Idioma
**Japoniera / Japonés**

Azpitituluak / Subtítulos
**Gaztelania / Castellano**

SELECTAVISION
www.selecta-vision.com

| Auditoriuma<br>Auditorio | Eguna<br>Día | Ordua<br>Hora | Bertsioa<br>Versión | Azpitituluak<br>Subtítulos | Aurkezpena<br>Presentación |
|---|---|---|---|---|---|
| **SOUL**<br>(Pete Docter, Kemp Powers, 2020 ) | | | | | |
| **VITORIA-GASTEIZ** / ARTIUM MUSEOA | **2023/07/06** | **19:00** | **Ingelesa**<br>Inglés | **Gaztelania**<br>Castellano | Joxean Fernández |
| **DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** / TABAKALERA | **2023/07/07** | | | | Miguel Martín, Joxean Fernández |
| **IRUÑEA/PAMPLONA** / GOLEM BAIONA | **2023/07/20** | **20:00** | | | Joxean Fernández |
| **REWIND & PLAY**<br>(Alain Gomis, 2022) | | | | | |
| **VITORIA-GASTEIZ** / ARTIUM MUSEOA | **2023/07/13** | **19:00** | **Frantsesa, ingelesa**<br>Francés, inglés | **Euskara**<br>Euskera | |
| **DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** / TABAKALERA | **2023/07/14** | | | | |
| **IRUÑEA/PAMPLONA** / GOLEM BAIONA | **2023/07/27** | **20:00** | | | |
| **EL TROMPETISTA** / YOUNG MAN WITH A HORN<br>(Michael Curtiz, 1950) | | | | | |
| **VITORIA-GASTEIZ** / ARTIUM MUSEOA | **2023/07/20** | **19:00** | **Ingelesa**<br>Inglés | **Gaztelania**<br>Castellano | |
| **DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** / TABAKALERA | **2023/07/21** | | | | |
| **IRUÑEA/PAMPLONA** / GOLEM BAIONA | **2023/08/03** | **20:00** | | | |
| **BLUE GIANT**<br>(Yuzuru Tachikawa, 2023) | | | | | |
| **VITORIA-GASTEIZ** / ARTIUM MUSEOA | **2023/07/27** | **19:00** | **Japoniera**<br>Japonés | **Gaztelania**<br>Castellano | Alberto Ibarrondo |
| **DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN** / TABAKALERA | **2023/07/28** | | | | Miguel Martín |
| **IRUÑEA/PAMPLONA** / GOLEM BAIONA | **2023/08/10** | **20:00** | | | |

CINEMA LE SELECT
SAINT JEAN DE LUZ

| | | | |
|---|---|---|---|
| **BIRD** (Clint Eastwood, 1988) | **2023/07/03** | **20:00** | **VOSTFR** |
| **AUTOUR DE MINUIT** (Bertrand Tavernier, 1986) | **2023/07/10** | **20:30** | **VOSTFR** |
| **REWIND & PLAY** (Alain Gomis, 2022) | **2023/07/17** | **19:15** | **VOSTFR** |
| **LA FEMME AUX CHIMÈRES** (Michael Curtiz, 1950) | **2023/07/24** | **19:00** | **VOSTFR** |




# ARGITALPEN BERRIAK
## NUEVAS PUBLICACIONES



CINEMA
LE SELECT
SAINT JEAN DE LUZ

**03** UZTAILA JUILLET | 20:00 | VOSTFR






Clint Eastwood

1988

# BIRD

**Charlie Parker (Bird) jazzeko saxofoi-jotzailearen ospeak azkar egingo du gora hura New Yorkera iristen denean, 1940an. Baina Parkerrek alkohola eta drogak neurrigabe kontsumituko ditu, eta ondorioz, bere bizitza infernua bilakatuko da.**

La popularité du saxophoniste de jazz Charlie Parker (Bird) augmentera rapidement lorsqu'il arrivera à New York en 1940. Mais Parker consommera de l'alcool et de la drogue, et sa vie deviendra un enfer.

**10** UZTAILA JUILLET | 20:30 | VOSTFR







Bertrand Tavernier

1986

# AUTOUR DE MINUIT

ROUND MIDNIGHT

**1959 urteko gau bat, Parisen, ahuldutako jazz musikari batek Blue Note klubeko bezeroak harrituta utzi ditu bere saxoaren doinu ederrarekin. Aretoaren kanpoan, gogoz ari zaio entzuten ardo baso bat ordaintzeko ere behartsuegia den gizonezko bat.**

Une nuit de 1959 à Paris, un musicien de jazz affaibli a surpris les clients du club Blue Note avec la belle mélodie de son saxo. En dehors de la salle, un homme trop pauvre pour payer un verre de vin écoute volontiers.



**ZINEMA EMANALDIAK / PROJECTIONS**

**Salneurri orokorra**
Tarif normal: **6,50 €**

***15-25 urtekoentzako salneurria**
Tarif 15-25 ans: **4,50 €**

Cinéma Le Sélect
29 Bd Victor Hugo
64500 Donibane Lohizune / St Jean de Luz
**www.cineluz.fr**

---

**17** UZTAILA JUILLET | 19:15 | VOSTFR






Alain Gomis

2022

# REWIND & PLAY

**1969ko abendua: Thelonious Monk Parisera iritsi da. Kontzertua baino lehen, musikariak saio bat grabatu du frantses telebistarentzat. Saio hartatik gorde diren pasarteek Thelonious Monk arraro eta itxi bat erakusten digute, estereotipoek harrapatutako gizon bat, alegia, nahiz bera haietatik ihes egiten saiatu zen beti.**

Décembre 1969, Thelonious Monk arrive à Paris. Avant son concert du soir, il enregistre une émission pour la télévision française. Les rushes qui ont été conservés nous montrent un Thelonious Monk rare, proche, en proie à la violente fabrique de stéréotypes dont il tente de s'échapper.

**24** UZTAILA JUILLET | 19:00 | VOSTFR






Michael Curtiz

1950

# LA FEMME AUX CHIMÈRES

YOUNG MAN WITH A HORN

**Bigarren eskuko tronpeta batekin eta ilusio menderaezinaz, mutil gazte bat blues-musikari bikain baten urratsen atzetik dabil, bera ere jazz-musikari handi bilakatu nahian. Haren obsesioak eta talentuak zulo ilunenetatik hiriko klubik dotoreenetara eramango dute.**

Avec une trompette d'occasion et un enthousiasme inébranlable, un jeune homme marche dans les pas d'un brillant bluesman, cherchant à devenir lui-même un grand musicien de jazz. Son obsession et son talent l'emmènent des bouis-bouis les plus sombres aux clubs les plus chics de la ville.



# EUSKAL EMAKUME ZINEMAGILEAK III
# CINEASTAS VASCAS III

URRIA – ABENDUA / OCTUBRE – DICIEMBRE
2023

**Antolatzailea** | Organizador

**EUSKADIKO FILMATEGIA**
FILMOTECA VASCA
CINÉMATHÈQUE BASQUE

**Kolaboratzaileak** | Colaboradores

ARTIUM MUSEOA
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO

TABAKALERA

**Informazio gehiago** | Más información

**www.filmoteka.eus**